

4. AZTERKETARIA

OROKORRA C1⁺

C1

Ongi menderatzen ditu hizkuntzaren hainbat alderdi, eta horrek aukera ematen dio gai orokor, akademiko, profesional eta aisiakoei buruz argi eta estilo egokian jarduteko formulazioa aukeratzeko, esan nahi duenari mugak jarri gabe.

Irakurri duen testuaren informazioa egoki ematen du; gai da deskribapen argiak eta xeheak egiteko eta ideia zehatzak garatzeko. Zehaztasunez hitz egiten du gaiari buruz (adibidez, gailu elektronikoak erabileraren arabera nola aukeratu behar diren zehatz-mehatz azaltzen duenean). Ideiak egoki aukeratzen ditu eta era ulergarrian adierazten ditu. Azalpenak jarioasunez eta bat-batekotasunez ematen ditu, kontzeptu berriak izan daitezkeen arren (teknologia berriez ari baita), hizkuntzaren berezko jarioari eusteko inolako arazorik gabe. Oso natural hitz egiten du, erritmo bizian, eta ez du arazorik adierazi nahi duena adierazteko.

Adierazi nahi duena esateko behar duen lexikoaren jabe bada. Lexiko zehatza, aberatsa eta egokia erabiltzen du, eta gai da —beharrezkoa ikusten duenean— ñabardurak egiteko edo ideiak azpimarratzeko.

Zuzentasun gramatikal handiz aritzen da hizketan, diskurtsoa egoki antolatu eta jardun ongi egituratua eta jarraipen onekoa sortuta.

Ez du hizkera estandar garbia erabili.

C2

Malgutasun handia du ideiak berriro formulatzeko, eta hizkuntza-moldeak bereizten ditu, ñabardurak zehatz-mehatz adierazteko, ideiak azpimarratzeko, bereizketak egiteko eta anbiguotasuna saihesteko. Gainera, esapide bereziak eta lagunartekoak menderatzen ditu.

Gaitasunen aldetik C2 izan badaiteke ere, eskatutako ataza edo ariketa egiteko behar dituen hizkuntza-baliabideak ez dira C2 mailakoak, baina bai C1 maila baino jasoagoak. Hori dela eta, C1⁺ dela esan liteke.

ZUZENTASUNA C2

Hizkuntzaren maila konplexuari dagokion gramatika ongi menderatzen du, nahiz eta beste alderdi batzuei (adibidez, solaskidearen erreakzioen jarraipenari edo planifikazioari) arreta eman.

Diskurtso oso zuzena eta aberatsa egiten du. Ez du ia akatsik egiten. Zerbait aipatzekotan, zenbaitetan, eta gehien bat aditzaren erabileran, maila jasoko (batua) aditz

formak erabili beharrean, euskalkiari dagozkionak erabili dituela esan behar : “badola”, “Dienek”....

JARIOA C2

Gai da bat-batean eta xehetasunez jarduteko, berezko jariotasunez eta lagunarteko hizkeran eta zailtasunak besteak ia ohartu gabe saihesteko moduan.

Oso jario naturala du. Ideia jasoagoa edo abstraktuagoa adierazi behar izaten duenean ere, zailtasunak saihestu eta oso modu naturalean aritzen da.

KOHERENTZIA C1⁺

C1

Diskurtso argia, jariotasun handikoa eta ongi egituratua sortzen du, eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu.

Diskurtsoa egoki antolatzen du. Diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen du, eta erraz ulertzen da zer esan nahi duen. Hala ere, ideia batetik besterako jauzian, askotan kohesio-elementu bera erabiltzen du (*eta gero... gero...*). Azkartasunak estali egiten ditu noiz edo noiz diskurtsoa antolatzean egiten dituen errepikapenak.

C2

Diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen du, antolaketa-egituren erabilera osoa eta egokia eginez, eta lokailuak eta beste kohesio-mekanismo asko erabiliz.

Beraz, 1. azterketariak diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen badu ere, kohesio-elementuetan ez du erakutsi C2 mailak beharko lukeen aberastasunik; esaterako, ideiak gehitzeko, behin eta berriro forma bera erabiltzen du: *gero... eta gero...*

ELKARRERAGINA C1+

Diskurtsoaren funtzioetan eskura duen sailetik esaldi egokiak hautatzen ditu bere oharrak egiteko, hitza hartzeko edo hitzari eusteko, eta bere jarduera eta solaskidearena trebetasunez uztartzeko.

Gai da hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko, beti ere erritmo eta jariotasun onean. Informazioa modu logiko eta kohesionatuan eman du, hizkuntza zuzena eta aberatsa erabilita.

Aise eta ondo gainditu du C1 mailan eskatutakoa.